



# Hizkuntza alorreko oinarrizko printzipioak eta euskal Administrazio Publikoetako hizkuntz plangintza: oraina eta geroa

(Basic linguistic principles and the linguistic planning of the Basque Public Administrations)



AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Iñaki

Administrazio Zuzenbideko Katedraduna  
EHUko Zuzenbide Fakultatea  
Manuel de Lardizabal, 2  
20009 Donostia  
dapagzii@sd.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 85-96]

**H**izkuntza eskubideen ordenazio juridikotik printzipio nagusiak eratorzen dira. Nola aplikatu izan dira aipatu printzipio horiek euskal Administrazio Publikoen hizkuntza plangintzetan? Zein neurri hartu behar dira etorkizunera begira? Azken galdera horren erantzun gisara, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari funtsezko sei ohar egiten zaizkio. Horietako bat da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea birtualki esparru soziolinguistikotan banatu litekeela, eta euskara eta gazteleraren ofizialtasunetik abiatuz, "lurralde horietako bakoitzean, hiritarren hizkuntza eskubideak sustatzeko nahiz babesteko neurriak gehiago edo gutxiago gara daitezke edo, eraginkortasun osoz bermatu". Kontuan hartu behar da baita gaur egun ez dagoela berme eraginkorrik euskaldunen hizkuntza eskubideak babesteko.

**C**ómo se han venido aplicando los principios básicos lingüísticos provenientes del ordenamiento jurídico en las planificaciones lingüísticas de las Administraciones Públicas vascas? ¿Qué medidas se deberían adoptar de cara al futuro? Como respuesta a esta última cuestión, se realiza una serie de observaciones al Plan General para la Recuperación del Euskara, una de las cuales radica en dividir virtualmente el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca en un ámbito sociolingüístico, en el que, partiendo de la oficialidad del euskara y del castellano, "se desarrollasen más o menos las medidas para fomentar y proteger los derechos lingüísticos de los ciudadanos, o se garantizasen con total eficacia". Hay que tener en cuenta que hoy en día no se cuenta con garantías efectivas para proteger los derechos lingüísticos de los vascoparlantes.

**C**omment ont été appliqués les principes de base linguistiques provenant de la réglementation juridique dans les planifications linguistiques des Administrations Publiques basques? Quelles mesures devraient être adoptées dans le futur? En réponse à cette dernière question, on réalise une série d'observations du Plan Général pour le Récupération du Basque, l'une d'elles étant de diviser virtuellement le territoire de la Communauté Autonome Basque en un domaine socio-linguistique, dans lequel, en partant du caractère officiel du basque et de l'espagnol, "on développerait plus ou moins les moyens pour favoriser et protéger les droits linguistiques des citoyens, ou bien on les garantirait de façon efficace". Il faut tenir compte qu'aujourd'hui il n'existe pas de garanties effectives protégeant les droits linguistiques des personnes parlant le basque.

---

1. **Sarrera.** 2. **Hizkuntza alorreko oinarrizko printzipioak:** 2.1. Hizkuntzen ofizialtasuna. 2.2. Gaztelania jakin beharra. 2.3. Lurralde bateko berezko hizkuntza. 2.4. Hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea. 3. **Euskal Herriko eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoa.** 4. **Euskal Administrazio Publikoetako hizkuntz plangintza.** 5. **Gibel solas moduan: bereziki, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruzko hausnarketa juridikoak:** 5.1. Sarrera. 5.2. Plan Nagusiari buruz sei ohar.

---

## 1. Sarrera

Gure gizartean hizkuntzari buruzko diskurtsoa arrazionaldu eta batez ere zentzuduna bihurtu behar dugu. Honela, beste komunitate eleaniztunetan gertatzen den bezala, gatazkak beti egongo dira, baina hizkuntz politikaren xedea jendeari sozialki integratzen lagunduko dioten oreka eta topaguneak bilatzean datza. Premisa gisa, gure artean, hizkuntzei buruzko diskurtsoan eta eztabaidan batzuetan eman ohi den hitzezko bortizkeria alde batera uztea ezinbestekoa dela deritzot. Uste dut herritarrek beren harreman publiko zein pribatuetan hizkuntza askatasunez hauta dezaten ahalbideratuko luketen oinarriak ezarri behar direla; eta botere publiko guztiei dagokie, euren eskuduntzen esparruan, pertsona guztiei beren hizkuntz eskubideak berdintasunez erabil ditzaten bermatzea.

Eztabaida kontestualizatu eta lasaitzeko adierazi beharra dago errealitate eleaniztuna uste baino ohikoagoa dela. Oro har, Europan gutxiengo hizkuntzik gabeko Estaturik ez dagoela esan daiteke; eta, Afrika, Amerika, Asia edo Ozeanian errealitate eleanitza ohikoa den bezala, hizkuntza bakarra izatea dela salbuespena. Europako Batasunaren esparruan ere eztabaidarik interesgarrienetako bat bertako kide diren Estatu ezberdinetako hizkuntza ofizial ugarien arteko elkarbitza eta egunero lan egiteko zein aukeratzen den erregulazioaren inguruan gertatzen dena da; gainera, Europar Batasunean Ekialdeko Estatuaren sarrerari begiratuz, beharrezkoa da lehenbailehen gai honi buruz eztabaidatzea eta irtenbideak bilatzea, nahiz eta Estatu bakoitzak bere hizkuntzaren alde azaltzen duen nazionalismoa adostasunera iristeko oztopo nabaria izango den.

Espanian, Konstituzioari eta Autonomia Estatutuei dagokie eleaniztasunaren oinarriak arautzen dituzten printzipio juridikoak ezartzea. Egia da euren garapenean oraindik aztertu ez den alderdi ugari dagoela, hala nola, gutxiengo hizkuntzak Estatu lurralde esparru guztian irakasteari dagozkionak —jakina, gainerako Autonomia Erkidegoetan norberaren borondatez

ikasteko—; edota hizkuntz aniztasuna Estatuko zenbait erakunde amankomunetara bederen hedatzea ere, Suitzan, Kanadan edo Belgikan egiten den bezala, adibidez. Dena den, jarraian lehenengo atal gisa azalduko dena hizkuntzaren alorreko funtsezko printzipioen laburpena da, hots, hizkuntzen ofizialtasunari buruzko printzipioaren garapena, gaztelania jakin behararen edukia, hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioaren eraginak eta lurralde bateko berezko hizkuntzaren izaeratik erator litezkeen ondorioak.

Bestalde, azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan kokatuz gero, derrigorrez kontuan izan behar dira 1996ko eroldaren arabera errealitate soziolinguistikoiari buruz ofizialki ezagutzera eman berri diren datuak.

Honen guztiaren helburua litzateke Euskal Administrazio publikoetako hizkuntz plangintzaren garapena zein izan den ikustea, nola eboluzionatu duen, zein den egungo egoera, zein sektore besarkatzen dituen, zeintzuk geratu diren baztertuta... eta, jakina, Estatu Administrazio periferikoan alor honetan ekimenik ez dela egon egiaztatzea.

Azkenik, gibel solas moduan, euskara biziberritzeko Plan nagusiari buruzko hausnarketa juridikoak luzatuko dira, oraina eta geroari begiratuz.

## 2. Hizkuntza alorreko oinarrizko printzipioak

Espaniar Konstituzioaren 3.1 artikuluko lehenengo paragrafoan gaztelania Estatu hizkuntza ofizialtzat jotzen da, horrekin, bistakoa denez, gainerako hizkuntza ofizialekiko egoera desberdinean kokatuz, bera baita Autonomia Erkidego guztietan eta, beraz, Estatu lurralde guztian, ofiziala den bakarra.

Bestalde, Konstituzioko 3.2 artikulua arabera, “gainerako hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izango dira dagokien Autonomia Erkidegoan, bertako Estatutuen arabera”. Beraz, gaztelaniarentzat ezarritako ofizialtasun bera aitortzen zaie gainerako hizkuntza espainiarrei, nahiz eta Autonomia Erkidegoaren lurralde eremura mugatuta egon.

Halaber, Konstituzioak gaztelania jakin beharra ezartzen du, inplizituki hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioa ere onartuz, eta aldi berean Estatu batzuek, hala nola Kataluniakoak edo Euskadikoak, katalana eta euskara, hurrenez

hurren, Erkidegoko berezko hizkuntzatat onartzen dituzte.

Nire ustez hizkuntza alorreko oinarriko printzipioak ofizialtasunarena eta hizkuntza dela-eta ez diskriminatzearena dira inolako zalantzarik gabe, eta aldiz, gaztelania jakin beharrena eta Erkidego bateko berezko hizkuntzarena osagarri gisa jo daitezke. Ikus dezagun bada hau guztia astiroago, printzipio bakoitzaren edukiak laburki aipatuz.

## 2.1. Hizkuntzen ofizialtasuna

Konstituzio Auzitegiak modu egokian adierazi duenez, “hizkuntza bat, bizi duen errealitatea eta fenomeno sozial gisa duen pisua alde batera utziz, ofiziala da botere publikoek beraien arteko eta subjektu pribatuekiko komunikaziorako ohiko bitarteko gisa onartu dutenean, erabateko balio eta eragin juridikoak izango dituelarik” (KAE 82/1986). Beraz, hizkuntza bat lurralde batean **ofizial** deklaratzeko denean, oztoporik gabe eta erabateko eraginkortasun juridikoaz erabili ahal izango da edonolako harreman publiko eta pribatuetan; alegia, ofizialtasunaren lehenengo ondorio juridikoa **hizkuntzarekiko eskubidean** datza, bai ikuspegi aktibotik baita pasibotik ere —erabiltzeko eskubide subjektiboa edozein kasutan, eta erantzuna aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea solaskidea erakunde publikoa denean—. Honek, bistan denez, administrazioiko eta botere publikoetako egiturak hizkuntza ofizial anitzen beharretara moldatzea baldatzen du.

Bigarrenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzetik eratorritako ondorioen artean juridikoki aho batez onartuta dago botere publikoek euren hezkuntza sisteman hizkuntza ofiziala edo ofizialak txertatzeko betebeharra hartzen dutela, horrela derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan hizkuntza hori ikasleek jakingo dela ziurtatzeko —ikus gai honi buruz LOGSEko 19.a) artikulua, edo gure Erkidegoan Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeko 3.2.g) artikulua—. Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak adierazia du “Estatuak bere osotasunean (Autonomia Erkidegoak barne direla) bai gaztelania baita hizkuntza ofizialaren izaera duen Erkidegoko berezko hizkuntza jakitea ziurtatzea ere betebeharrak konstituzionala dela..., honek, jakina, bi hizkuntzak xede hori lortzea bidezko egingo duen indarrak irakatsiko direla dakar. Eta betebeharrak hori Estatututik ez ezik, Konstituzio beratik ere dator (3. art.)”. Horretaz gainera, Konstituzioaren interpretari gorenak erantzen duenez, “erregulatutako gutxieneko ordutegiak ez balira nahikoak bi hizkuntza ofizialak eraginkortasunez irakasteko, betebeharrak

konstituzional hori ez litzateke beteko” (KAE 88/1983). Beraz, ez da aski hizkuntza ofizialak irakastea, baizik eta beharrezkoa da irakaskuntza hori modu **eraginkorrean** antolatzea, horrela, derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, ikastetxea edo hautatutako eredu edozein dela ere, ikasleek dagokien lurralde eremuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak jakin ditzaten.

Azkenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzeko azken ondorio gisa zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea —Kataluniako *Consell Consultiu*-k 35/1982 Txostenean egin zuen moduan— ezin dela Administrazioak darabilen hizkuntza ofiziala ez jakitea alegatu, hark, dagokion betebeharrak konstituzionala betetzeko, ikastetxeetan hizkuntza ofizialaren edo ofizialen irakaskuntza eraginkortasunez bermatzen duenean. Gaztelaniari dagokionez, jakina, ondorio hori ziurtatuta dago, irakaskuntzak —Espainia osoan betebeharrak gisa orokortu zenetik— Estatu guztiko hizkuntza ofiziala ikastea bermatu baitu. Aldiz, Espainiako gainerako hizkuntza ofizialak irakaskuntzan sartzea duela gutxi gertatu da eta denek ez dute zorte bera izan. Horregatik, normalizazio prozesu baten beharrenean daude eta bere oinarria belaunaldi berriei modu eraginkorrean erakustean datza.

## 2.2. Gaztelania jakin beharra

Hizkuntza alorrean Konstituzioaren lehenengo nabarmentzen den alderdia da, gaztelaniaren eta Espainiako gainerako hizkuntzen ofizialtasunarekin batera esplizituki derrigorrez gaztelania jakin beharra agintzen dela. Konstituzioa egin zenean klausula hori ez zen ustegabeen pasa, nahiz eta aurregitasmoa ez zen aldatu, eta esan daiteke gaia oso eztabaidatua izan zela, izan ere, batzuek kentzea eskatu zuten, beste batzuek ordea gainerako hizkuntzetara ere jakin beharra hedatzea, eta azkenik, espainiar guztiek gaztelania jakiteko obligazioa hizkuntza horren erabilerrara zabaldu nahi izan zuenik ere egon zen, koofizialtasunak bidezko egiten duen aukeraren aurkako jarrera agertuz. Dena den, proposamen horiek ez ziren onartu eta, ondorioz, Konstituzioak gaztelaniari dagokionean soilik agintzen du jakin beharra, nahiz eta edozein hizkuntza ofizial erabateko balio eta eragin juridikoz erabiltzeko eskubidea ere ezartzen duen. Horrek zera esan nahi du: Konstituzioak ez duela gaztelania erabiltzera behartzen, ez eta bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan inposatzen ere, baizik eta hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatzen duela.

Bestalde, Konstituziotik ondorioztatzen nahi bada Autonomia Erkidego elebidunetako bi hizkuntza ofizialen artean ez dagoela berdintasun



juridikorik, jakin beharra gaztelaniari bakarrik dagokiolarako, baieztapen honi zenbait ñabardura erantsi beharko zaio eta galdetu beharko litzateke botere publikoek nola edo zein modutan bermatzen duten gaztelania jakitea. Honen erantzuna derrigorrezko irakaskuntzaren eta aurreikuspen hori hezkuntza planetan sartzearen bidetik etorriko da. Baina ezin da ahaztu ofizial deklaratzetik ere aurreikuspen horixe datorrela, izan ere Estatuak, Konstituzio Auzitegiak dioenez, nahitaezko hezkuntzan hizkuntza ofizialak eraginkorki irakatsiko direla bermatzeko “betebehar konstituzionala” dauka. Beraz, betebehar honen ondorioz logikoa dirudi pentsatzea Autonomia Erkidego elebidunetan derrigorrezko irakaskuntza egiten duten ikasleek bi hizkuntza ofizial jakingo dituztela.

Laburbilduz, gaztelania jakin beharra ezartzen duen Konstituzioko klausulak hizkuntzen ofizialtasunaren eragin juridikoari ez dio ezer berezirik eransten, ez bada “**beharraren**” berezitasuntzat “**gaztelaniari**” dagokion zerbaite dela ulertzen, hain zuzen ere, Estatu guztian zehar hedatzen eta irakasten den hizkuntza delako, pertsonen bizileku eta auzotasun zibila kontuan izan gabe, bai Konstituzioa onartu aurretik, baita ondoren ere. Alegia, gutako inork ez daki gaztelania Konstituzioak jakiteko beharra ezartzen duelako, baizik eta derrigorrezko hezkuntzan ikasi dugulako.

### 2.3. Lurralde bateko berezko hizkuntza

Autonomia Estatutu batzuetan berezkotasun printzipioa azpimarratzen da Erakunde Publikoek Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntzaren erabileraren lehentasuna ahalbideratzeko. Ildo horretatik, Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko 1/1998 Legean baieztatzen denez, berezko hizkuntzaren kontzeptua katalanari aplikatzeak botere publikoak hizkuntza hori babestera, modu orokorrean erabiltzera eta bere erabilpen publikoa maila guztietan bultzatzera behartzen ditu. Horretaz dihardu Legeko 2. artikulua ere ondorengoa adierazten duenean: “Katalana, berezko hizkuntza denez, Kataluniako erakunde guztien hizkuntza da eta bereziki Generalitateko Administrazioarena, toki Administrazio, gorporazio publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, hedabide instituzionalena, irakaskuntzakoa eta toponimiakoa”.

Dena den, aldi berean bi hizkuntza dauden Erkidegoetan, berezkotasun printzipioak ezin du ofizialtasun bikoitzaren printzipioa ezabatu. Nolabaiteko modulazioak eragin ditzake, baina orokorrean ezingo da hizkuntza bakarraren

printzipioa aplikatu, bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan burututako edozein jarduerak erabateko balio eta eragin juridikoa izango baitu. Beraz, hizkuntzen erabilerari dagokionean, Administrazio Publikoek bermatu behar dutena da herritarrek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiliko dela *ad extra* edo kanpo harremanetan, Erkidegoaren berezkoa izan ala ez; ezberdina da lan-harremanetan —edota Administrazioaren *ad intra* edo barne harremanetan—, jarduera hauetan Erkidegoan berezkoa dena soilik erabil daiteke eta hori guztiz onargarria litzateke, beti ere noski, lege babesa badago eta Administrazioaren zerbitzura dauden langileak hizkuntzaren ikuspuntutik trebatuta badaude.

Horrela, laburbilduz esan daiteke hizkuntz ofizialtasun bikoitzak herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea babesten duela, eta berezko hizkuntzaren printzipioak aldiz, Administrazio barne harremanetan lehentasunez erabiltzea bidezko egiten duela, baita —hala egin nahi eta ahal bada— laneko hizkuntza gisa soilik hizkuntza hori erabiltzea ere. Horixe gertatzen da Estatuako Administrazio periferikoan gaztelaniarekin, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari buruzko Legeko 36.1. artikuluan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legea), eta gauza bera gerta daiteke, baina alderantziz, Autonomia Erkidegoko Administrazioetan berezko hizkuntzarekin.

### 2.4. Hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea

Sistema guztia borobiltzeko garrantzi berezia hartzen du hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioak, funtsezko eskubideen oinarritzko gunea baita berau gauzatzekoan hizkuntza ofizial baten hautaketa edo exijentzia tarteratzen denean. Konstituzioko 14. artikulua idazkeran hizkuntza hitza sartzea komeni zela begibistakoa zen, batik bat nazioarteko itunekiko koherentziagatik. Honi buruz, kontuan izan behar da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (2.2. art.) eta Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmenak (14. art.) hala jasotzen dutela eta, dakigun bezala, Espainiak bi testuak berretsita dituela.

Halere, Konstituzioak hori jasotzen ez duenez, mahaigaineratu beharreko galdera ondokoa litzateke: printzipio hori inplizituki sartuta ote dagoen. Erantzunak baiezkota dirudi, izan ere oso urruti joan gabe, tipifikatzeko borondate itxirik ez dagoela ikus baitaiteke Konstituzioko 14. artikuluan beste baldintza edo zirkunstantzia personal edo sozialak aipatzen direnean, zeintzuk logikoki hizkuntzari lotuta egon daitezkeen Konstituzioko 10.2. artikulua eragin

**“ Aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea ez da hizkuntzaren erabilera hutsarekin agortzen, baizik eta aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzuna izateko eskubide konstituzionaleraino zabaltzen da ”**

zuzena dela-eta. Aipatu artikulua, jakina denez, funtsezko eskubideei buruzko arauak alor horretan eman diren eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko akordioen arabera interpretatuko direla dio.

Printzipio honek izan ditzakeen ondorio praktikoak Estatu guztiko hizkuntza ofizialerako baita Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntzekiko ere eman daitezke, kasuan kasuko baldintzen arabera.

Zehazki, diskriminazioa funtsezko eskubide bat gauzatzeko eman daiteke, hala nola funtzio publikoan lanera sartzerakoan, non berezko hizkuntzaren balorazioa egiteko Konstituzioaren arabera inolako arazorik ez dagoen baldin eta burutu beharreko lanerako beharrezkoa duenarekiko zentzuzkoa eta proportzionala bada; eta exigentziak ere ez luke arazorik sortu beharko, derrigorotasuna bete behar den lanposturako gaitasunezko ukanbehar gisa azaltzen bada (KAE 46/1991).

Era berean, diskriminazioak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide publiko subjektiboan izan dezake jatorria, eta horrek, baita gutxiengo hizkuntzen kasuan ere, hizkuntzaren ofizialtasunean ez ezik, aurrez aipatu Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituneko 27. artikuluan ere du bere oinarria. Nire iritziz, hizkuntza ofizial orori dagokion eta ezabatu ezin den funtsezko eskubidea da. Hori bai, gehienez, Administrazioa hizkuntza ofizialak jakiteko betebeharrak konstituzionalari egokitu artean modulatu egin daiteke. Orobat, aipatu eskubidea

ez da hizkuntzaren erabilera hutsarekin agortzen, baizik eta aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzuna izateko eskubide konstituzionaleraino zabaltzen da.

Orain oreka eta irtenbidea aurkitu beharko zaion funtsezko arazoa hau da: Erkidego elebidun batean, non hizkuntza ofizialeko bat biztanleen zati batek soilik ezagutzen duen, nola uztartzen diren hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza dela-eta diskriminatua ez izateko printzipioa, azken honek dituen aukera guztiak kontuan izanik. Bistakoa denez, Euskal Administrazio Publikoetan dagoen hizkuntz plangintzaren behararen eta hemengo errealitate soziolinguistikoaren arteko harremana oso zuzena da.

### **3. Euskal Herriko eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoa**

Gauza bat, hizkuntza bat ofiziala izatea da, Konstituzio Auzitegiak dioen modura “fenomeno sozial gisa duen errealitatea eta pisua kontuan izan gabe”, eta beste bat, desberdina oso, errealitate horren abstrakzioa egin ahal izatea eta hizkuntza ofizial horren benetako ezagutza mailari muzin egitea. Argi dago euskararen kasuan bere ofizialtasuna, egitez, soziolinguistikoki baldintzatuta egon litekeela gune edo herri erdaldunetan; alegia, ofiziala izan arren zenbait tokitan ezinezkoa izango da bere erabilera normala eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzea, bere normalkuntzak administrazioa eta botere publikoetako egiturak hizkuntz ofizialtasunaren aniztasunera egokitzea eskatzen baitu, eta hori ez da ez bat-batean egiten, ez eta boluntarismoaren irrealtasunean eraikitzen ere.

Gainera, Euskal Herriko lurralde, eskualde eta herri desberdinetako errealitate soziolinguistikoa anitza da eta honek Administrazioan euskara jakitea Administrazio bakoitza kokatuta dagoen lurraldeko errealitate soziolinguistikoa dagoen euskararen ezagutzaren parean jartzen duen plangintza prestatu beharra dakar.

Beraz, derrigorrezkoa dirudi zonalde ez-euskaldunetan errealitate soziolinguistikoaren eraginez gutxiengoan dauden hizkuntzak, *de facto*, ofizialtasunaren *statusa* izatetik erdiofizialtasun *statusa* izatera pasatzea; baina ezin da ahaztu ofizialtasunetik eratorritako normaltze prozesuak oinarriak jarri dituela —derrigorrezko hezkuntza orokorraren bitartez— Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztian, etorkizunean euskara benetan jakingo dela ziurtatuta gera dadin.



Ildo horretatik, 1981-1996 urteen artean hizkuntz gaitasunaren ebaluaketari buruzko datu ofizialak aztertzen badira, Euskal Autonomia Erkidegoan ondorengo ikus daiteke: 190.682 euskal hiztun gehiago dagoela (guztira 621.818, biztanleen %30,9a); euskara zailtasunez hitz egin arren ulertzen dutenen kopurua (ia-euskaldunak) 82.300 lagunetan igo dela, honela elebidun pasiboen zenbatekoa 322.726ra iritsiz (biztanleen %16a); eta azkenik, erdaldun elebakarren kopurua 226.998 lagunetan jaitsi dela, nahiz eta horiek gehiengoa osatu Erkidego guztian, 1.070.478 izatera iristen baitira (biztanleen %53,1a).

Hamabost urte horietan zehar hiru Euskal Lurralde Historikoetan euskal hiztunak nabarmen igo dira. Bizkaian 94.000 gehiago dira, Gipuzkoan 67.000 inguru eta Araban 30.000. Bereziki azpimarratu behar da Arabako igoera, lurralde horretan euskal hiztunak hirukoiztu egin baitira. Euskal Herriko eskualde guztietan joera berbera azaltzen da, hots, euskal hiztunen portzentaia gorantz doa eta erdaldun elebakarrena beherantz. Datu guztiak lurralde historikoka, eskualdeka eta udalerrika Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1999an argitaratu duen *"II. Soziolinguistikazko Mapa"*, 3. tomoan azter daitezke xehetasunez (edota Interneten: <http://www.eustat.es>).

Une honetan, eskualdeei begiratzuz gero, Lea-Artibai zonaldea (Markina-Ondarroa) nabarmentzen da euskal hiztunen portzentaiarik handiena duelako (%87,8) eta, era berean, erdaldun portzentaiarik txikiena (%6,9). Arabako Haranak dira, aldiz, euskal hiztunen portzentaiarik txikiena (%4) eta erdaldun elebakarren indizerik handiena dutenak (%87,6). Bestalde, elebidun pasiboen edo ia-euskaldunen portzentaiarik handiena duen eskualdea Bilbo Handia da.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean, euskal hiztunik gehien dituztenak Gipuzkoako eskualdeetan eta Bizkaiko ekialdean daudenak dira, gehienak 1.000 biztanle baino gutxiagokoak. Aldiz, Araban eta Bizkaiko mendebaldean dauden eta biztanle kopuru txikiak dituzten udalerririk dira erdaldun elebakar gehien dituztenak.

Hamar mila biztanletik gora dituzten udalerrien artean Azpeitian dago euskal hiztunen kopururik handiena (%88,3). Aldiz, euskal hiztunen portzentaiarik txikiena duten udalerririk Bilbo Handiko eskualdean daude, hala nola, Sestao, Barakaldo eta Santurtzi, zeintzuen portzentaia %10aren ingurukoa den.

Azkenik, hiriburuen artean desberdintasun nabarmenak ematen dira. Horrela, Donostian biztanleriaren ia herena (%32,6) euskal hiztuna den bitartean, Bilbon portzentaia %14,3koa da eta Gasteizen %13,6koa.

Aipatu hamabost urteetan zehar udalerrietan eman diren aldaketak aztertzen baditugu, udalerririk askotan euskal hiztunen kopuruan eta portzentaian emaniko gehikuntza nabaria da. Hazkunderik esanguratsuen Araba eta Enkarterrietako udalerririk txikienetan eta erdaldun elebakar gehien dituztenetan gertatu da eta horren arrazoia eroldan belaunaldi berriak —euskaraz ikasi dutenak— sartzean datza nabarmenki.

Neurri handiko udalerriei dagokienez, guztietan euskal hiztunen kopuruak gora egin du eta gehikuntza hori are argiagoa da Bilbo Handiaren eskualdean. Horrela, Barakaldon 7.400 euskal hiztun gehiago daude, Portugaleten 4.600, Sestaon 2.400 eta Getxon 8.900. Hiriburuen artean, Gasteizen ia hirukoiztu egin da euskal hiztunen kopurua 22.000 gehiagorekin, Bilbon bikoiztu egin da euskal hiztunen kopurua 26.000 gehiagorekin eta azkenik, Donostian %64ko igoera izan da, 21.500 euskal hiztun gehiagorekin.

Hizkuntza gaitasunari dagokionean, euskal hiztunen kopururik handiena jende gazteenaren eta zaharrenaren artean dago. Azpimarragarria da 5 eta 24 urteko gazteen artean euskal hiztunen portzentaia izan duen gorakada, erdaldun elebakarren kopurua gainditzera iritsi baita. Gailentasun hori bereziki esanguratsua da 5 eta 14 adin-tartean, euskal hiztunen indizea %60ra iristen baita tarte horretan, eta erdaldun elebakarrena aldiz %20 ingurukoa baita. Orokorrean, adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan, eboluzioa handiagoa izan da. Adibidez, 1981ean euskal hiztun gehien zituen adin taldea 85 urtetik gorakoena zen; hamabost urte beranduago, berriz, euskal hiztunen indizerik handiena 5 eta 9 urte artean dituztenetan dago.

Beraz, datu horiek ikusiz argi dago herritarren hizkuntza eskubideei erantzuteko Administrazioa errealitate berriari egokitu behar zaiola —geometria aldakorreko formula baten bitartez—. Ildo horretatik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetan Euskararen Erabileraren Normalkuntza Prozesua arautzen duenak, 17. artikuluan lortu beharreko helburuak azaltzen ditu, Administrazio bakoitza kokatuta dagoen tokiko errealitate soziolinguistikoak bereiziz, orain jarraian ikusiko den moduan.

Aurretik adierazi nahi nuke, labur bada ere, Nafarroan Administrazioan hizkuntza plangintzarik ez badago ere, 1996ko Erroldako datu soziolinguistikoak ere ezagutzen dituela Nafarroako Gobernuak Estatistika Erakundeak, oraindik argitalpen ofizialik ez dagoen arren. Une honetan daturik azpimarragarriena, sor dezakeen harriduragatik, zera da: 254 udalerririk, denetara 297 biztanle dituzten lau udalerririk soilik direla euskal hiztunik gabeak (Olexoa, Miliarri, Ukar eta

Petilla, azken herri hau geografikoki Aragoiko Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen enklabea).

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 15 urtetik gorako biztanlegoaren artean egindako azterlan soziolinguistikoa argitaratu berria da, eta bertan adierazten denez, nafarren hamarren bat euskal hiztunak dira, beste hamarren bat elebidun pasiboak eta gainerakoak, hots, populazioaren %80a, gaztelaniadunak (ikus *"Nafarroa. Euskararen jarraipena II, 1996"*). Hizkuntzaren ikuspuntutik euskalduna den zonaldea, jakina, Nafarroako gainerakoen desberdina da, bertan erdaldun elebakarrak %32,7ra jaisten baitira eta zonalde mistoan berriz %81,6ra eta zonalde ez-euskaldunean %93,2ra iristen baitira.

#### **4. Euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza plangintza**

Katalunian 1/1998 Legeko 11. artikulua xedatzen du Kataluniako Administrazio, gorporazio eta erakunde publikoen zerbitzura dauden langileek Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakin behar dituztela; eta Generalitateko Administrazio, toki Administrazio eta unibertsitateetako administrazio eta zerbitzuetako lanpostuetarako langileak hautatzeko prozesuan katalana ezagutzen dela egiaztatu behar da. Batzuetan, gure Erkidegotik kanpo, uste izaten da Euskadin gauza bera gertatzen dela eta oro har, Euskal Administrazio Publikoetan lan egiteko euskara nahitaez jakitea eskatzen dela. Zoritzarrez, euskaldunok badakigu hala ez dela. Errealitatea guztiz bestelakoa da, hain zuzen ere errealitate soziolinguistikoa ezberdina baita eta errealitate horrek nahitaezko egokitzapen bat galdatzen duelako.

Gaia zehaztasunez aztertuz gero, lehenik eta behin gogora ekarri behar da lauogeiko hamarkadan zehar Administrazio autonomikoak eraikitzen hasi zirenean (euskalduna, katalana eta galegoa) autonomietako hizkuntzen ezagutza ezin zela merezimendu gisa ere baloratu —eta are gutxiago, gaitasunezko ukanbehar gisa exijitu ere—. Honen arrazoiak ondokoak zen: urteetan zehar Auzitegi Gorenak esaten zuela, inolako ñabardurarik gabe, Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza merezimendu gisa baloratze hutsa funtzio publikorako aukeren berdintasun printzipioaren aurkakoa zela. Doktrina hori Konstituzio Auzitegiak zuzendu zuen zera xedatuz: "herritarrek hizkuntzak erabil ditzaten bermatzeko, ez lekarke arazorik botere publikoek funtzionari lanpostu jakin batzuetarako bi hizkuntzak jakitea beharrezkotzat jotzea edota hori merezimendutzat hartzea bestelako

merezimenduekin batera". (KAE 82/1986). Ondoren KAE 46/1991k Kataluniako Funtzio Publikoari dagokionez ondorengo adierazi zuen: "Konstituzioaren arabera zilegia dela katalana maila jakin batean ezagutzea galdatzea, hizkuntza horrek Katalunian duen izaera koofiziala eta katalanaren erabilerak Autonomia Erkidegoaren lurralde guztian duen hedapena kontuan hartuz, ezinbestekoa delako Administrazio autonomikoan funtzionarioak bere lana modu egokian burutu ahal izateko".

Beraz, Konstituzioaren arabera ez dago arazorik berezko hizkuntza orokorrean baloratzeko, ez eta galdatzeko ere — gaitasunezko ukanbehar gisa—, lana modu egokian burutzeko eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko egiten bada. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1989an Funtzio Publikoaren Legea onartu zenean Administrazioko hizkuntz plangintzaren oinarriak ezarri ziren —adostasunean—, jeltzale eta sozialisten arteko gobernu koalizioaren gidaritzapean.

Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, xedea "Administrazio elebiduna eraikitzeke betebeharrak utziezina" da. Hori lortzeko, lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizun bat ezartzen zaio eta horren bidez lanpostu hori betetzeko eta dagokion lana burutzeko nolako hizkuntz gaitasuna behar den zehazten da —batetik laurako aldagaiekin—. Horretaz gainera, lanpostu bakoitzak derrigortasun data izan dezake eta data hori betetzen denean soilik joko da hizkuntz eskakizuna nahitaezko galdapen gisa lanpostu hori bete ahal izateko. Horren ondorioz, derrigortasuna ezartzen ez den bitartean, ezarritako hizkuntz eskakizunak lanpostua hornitzeko edota kanpoko norbait aukeratzeko garaian euskara jakiteari merezimendu gisa egingo zaion balorazioa zehazteko bakarrik balioko du.

Erraz ikus daiteke arazoaren gakoa ez dela soilik lanpostuaren hizkuntz eskakizuna zein den jakitea —1. eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermena funtsezko mailan menperatzea eskatzen du; 2. eskakizunak ahozko ulermena ongi menperatzea dakar; 3. eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermen ona izatea galdatzen du; eta azkenik, 4. eskakizunak hizkuntz gaitasunaren maila espezializatua eskatzen du eta normalean unibertsitateko lizentziatuei dagokie—; horretaz gainera garrantzi berezia dauka derrigortasun data, horixe baita lanpostu bakoitzaren hizkuntz eskakizuna galdatzen has daitekeen unea.

Administrazio bakoitzari dagokio bere lanpostuen hizkuntz betebeharrak finkatzea — Eusko Legebiltzarrak onartutako irizpideak



betetz—, eta hori lanpostuen zerrenda onartzean egin ohi da; zerrenda hori Euskal Autonomia Erkidegoan prestatzerakoan, lanpostuaren izenarekin batera, zein talde, kidego edo eskalako den, izango duen dedikazio erregimena, hizkuntz eskakizuna eta, baldin badauka, derrigortasun data adierazten dira.

Logikoki, antzeko lanpostuetan hizkuntz eskakizuna berdina izango da Administrazio Publikoetan, baina derrigorrezko data errealtate soziolinguistikoa kontuan hartuz galdutako da, eta hori Administrazio bakoitzaren lurralde eremuari dagokion **derrigortasun indizetik** aterako da; aipatu indizea kalkulatzeko euskal hitzunen kopurua eta elebidun hartzaileen erdia gehitzen dira. Horrela, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan Erroldako datu ofizialen arabera %30,9a badira euskal hitzunik eta %16a elebidun pasiboak, Erkidegoko erakundeetan derrigortasun indizea  $30,9 + (16/2) = 38,9$  izango litzateke; hots, gaur egun indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, 1996ko Erroldako datuak aplikatuz, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen %38,9ak 2002. urteko abenduaren 31 baino lehenagoko derrigortasun data izango du, egun horretan bukatzen baita plangintzaren bigarren epealdia.

Lanpostuei derrigortasuna ezartzeko irizpideek Administrazio maila ezberdinei tratamendu zuzen eta proportzionala ematea izango dute helburu, horiek zein kidego, eskala edo titulazio taldetakoak diren bereizi gabe. Halere, publikoarekin harreman zuzena duten eta elebidun gisa kalifikatutako unitateetako lanpostuek lehentasuna izango dute. Azken hauetan sartzen dira bereziki gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa dutenak. Ez da ahaztu behar Autonomia Erkidego osoan gaztelaniadun elebakarrak 30 urtetik beherako biztanlegoaren erdia baino gutxiago direla, eta 15etik beherakoen artean portzentaia %20ra murrizten dela.

Euskal Administrazio Publikoetan —funtsean erakunde autonomiko, foral eta lokaletan, bakoitzaren erakunde autonomoak barne direla— egindako hizkuntz plangintzaren balantzea datuetan azalduz gero —1999ko apirilaren 6ra egokituta—, zera daukagu: 29.390 lanpostutik 10.343ri (%35,19) ezarri zaiola derrigortasun data eta horietatik 1.339 funtzionariok (%12,94) ez duela hizkuntz eskakizunik egiaztatu, nahiz eta adierazi beharra dagoen 2.014 kasutan (%19,47) derrigortasuna hutsik dauden eta normalki bitarteko langileek betetzen dituzten lanpostuei ezarri zaiela eta, azkenik, 1.054 lanposturi (%10,19) ez zaiola derrigortasunik eskatu funtzionarioak 45 urte baino gehiago izategatik eta arrazoi horregatik hizkuntz eskakizunen derrigortasunaren erregimen orokorra betetzetik salbuetsita geratu direla.

Gainera, gogora dezagun plangintza orokor honek ez dituela hartzen osasun sektorea (21.685), Ertzaintza (7.300) eta irakaskuntzako langileak (18.000), euren izaera berezia eta ezaugarriak direla-eta. Azken kasuotan, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretu bidez, ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntza/OHOko eta Irakaskuntza Ertaineko irakaspostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko irizpideak nahiz euren salbuespen araubidea finkatzen dira. Aipatu Dekretuan, hizkuntza eskakizun bi soilik dituen sistema taiutzen da: honetara, 1. hizkuntz eskakizuna euskarako edo euskaraz klaserik ematen ez duten irakasleei ezartzen zaie eta gurasoei zein ikasleekin euskaraz komunikatzeko gaitasuna ematen die; 2. hizkuntza eskakizunarekin ordea klaseak euskaraz eman ditzakete. Bestalde, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuko 26. artikulua irakasleen hizkuntz gaitasunari buruzkoa da eta irakasle berriek Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan klaseak emateko gai izan behar dutela xedatzen du. Irakaskuntzako sindikatuak ordezkoen zerrendei ere printzipio hori aplikatzearen alde azaldu ziren; hala ere, UGT sindikatuak helegitea aurkeztu dio aipatu 26. artikuluari, bere ustez “euskaraz irakasteko gaitasuna ematen duen hizkuntz eskakizuna ez duten izangaiak irakaskuntzako funtzio publikoan sartzea galarazten baitu”. Gaia kontestualizatuz, kontuan izan behar da 1998/1999 ikasturtean eskolara joaten hasi diren hiru urteko 15.674 haurren arteko %87,2ak D eta B ereduak aukeratu dituela (nagusiki edo zati batean euskaraz ematen den irakaskuntza), hau da, %12,8ak bakarrik aukeratu duela A eredu (euskara ikasgai gisa duen gaztelaniatzko hezkuntza); eta 1999/2000 ikasturtean azken eredu hau %11k bakarrik aukeratu duela.

Ertzaintzari gagozkiola, 1998ko otsailaren 24ko Dekretuak arlo horren hizkuntz normalkuntzarako prozesua arautzen du, eta bere helburua ertzainak batik bat euskararen ahozko ulermenean trebatzea da. Kontuan izan behar da ertzainen hautaketan formazio ikastaroetarako aukera izateko garaian ez zaiela euskara inolako mailatan jakitea eskatu, nahiz eta azkeneko promozioek aipatu ikastaroetan jaso duten gutxieneko hizkuntz trebakuntza. Etorkizunean derrigortasun datak urtero ezarriko dira, oraindik onartzeke dagoen lanpostuen zerrendan dagozkion aldaketak eginez.

Azkenik, osasun sektoreko plangintza, prestatze prozesu geldoan dago oraindik. Bitartean, 1997ko ekainaren 26ko Legeak, Euskal Osasungintzaren Antolaketa buruzkoak, xedatzen du Osakidetza lanpostuak hornitu eta langileak hautatzeko aurrera eraman ditzan prozesuetan funtzio publikoaren legerian aurreikusitako arauak aplikatuko dituela



euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzeko, eta Osakidetzako langileak euskaldundu eta alfabetatzeko ikastaroetarako deialdia egiten du. Gainerakoan, lehenbailehen euskal hitzunek gehiago nabarmena osatzen duten herrietan eta osasun zerbitzuak gaztelaniaz eskaintzen direnean sortzen diren arazoak ekidin behar dira, baita pediatriako zerbitzuetan gertatzen direnak ere, horietaz baliatzen diren haurtxo asko euskal hitzun elebakarrak baitira.

Bestalde, adierazi beharra dago sozietate publikoek eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen menpe dauden zuzenbide pribatuko erakunde publikoek zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, erabiltzailearekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dutela. Halaber, kontratazioen alorrean, erabiltzailearekin harreman zuzena duten eta hirugarren batzuek gauzatzen dituzten zerbitzu publikoak, herritarrei dagokion Administrazioari exijitu dakiokkeen hizkuntz baldintza berberetan emango zaizkiela bermatu beharra dago.

Euskal Herrian kokatuta dagoen Estatuko Administrazioari dagokionez, bertan ez da jadanik inolako hizkuntz plangintzarik jarri martxan Erkidegoko berezko hizkuntza erabili nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatu ahal izateko, Administrazio Publikoetako Ministerioak onartutako Agindu batek (1990eko uztailaren 20koan), lanpostuen horniketa prozesuan Erkidegoko berezko hizkuntzaren balorazioa bideratzen badu ere.

Bukaera gisa, aipamen berezia merezi du Justizia Administrazioak, tamalez, gaur egun ezinezkoa baita epaile eta magistratuei euskararen ezagutza lanpostuak hornitzeko garaian galdatzea, ez eta oraingoz behintzat Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei ere (ofizial, administrari laguntzaile, agente judicial...). Azken gai honi dagokionez etorkizunean eman beharko du bere epaia Konstituzio Auzitegiak, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 63/1998 Dekretuak, beste helburu batzuen artean, "hizkuntz koofizialtasuna bermatu" nahi baitzuen eta plantilak osatzeko irizpide gisa lanpostu jakin batzuetan euskararen ezagupena exijitzea aurreikusten baitzuen —Eusko Jaurlaritzari transferitu berri zaion pertsonal honen erabateko adostasun sindikalarekin— eta Dekretu horri Gobernu zentralak, eskuduntza gatazkaren bitartez, kontra egin baitzion.

Hala ere, datu baikor gisa azpimarratu beharra dago Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren Plenoak, Euskadiko Justizia Administrazioako ofizial, administrari laguntzaile

eta agenteen kidegoetako plantila organikoak zehazteko Aginduren Egitasmoari buruz egindako txostenean, positiboki baloratu duela Eusko Jaurlaritzak bidalitako plantila proposamena, zera adieraziz: "zenbait lanpostutarako eskakizun eta baldintza teknikoak zehazten dituen neurrian, Justiziako Liburu Zurian jasotzen diren printzipioen araberrakotzat eta horiekiko arrazoizkotzat jo behar da". Orobat, Kontseiluaren Plenoak, 1998ko uztailaren 27ko txosten horretan bertan adierazten du Botere Judizialeko gobernu organuak behin eta berriz defendatu duela "jurisdikzio organuen aurrean Autonomia Erkidegoko hizkuntza erabiltzeko eskubidea, honela Justizia Administrazioaren esparruan hizkuntzaren normalkuntzaren alde eginez, eta eskubide horren edukia batik bat herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean komunikatzeko eta erantzuna jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari begira egon behar duela, baita prozesua, bertan parte hartzen duten subjektuen aniztasunaren eta hizkuntz jarreraren arabera, justiziaren helburuetarako egokiena den hizkuntzan garatzeari ere". Beraz, badirudi helburu horiek nekez lor daitezkeela ez bada Justizia Administrazioako Kidego nazionalerako lanpostu batzuek hornitzaerakoan —gutxienez— euskaraz jakitea eskatzea ahalbideratuko duen bide juridikoren bat ezartzen. Ez bada hori egiten, zentzuzkoa al da, adibidez, euskal hitzunen %90eko indizea duen eskualde batean Justizia Administrazioak horien hizkuntz eskubideak ez bermatzea? Ez al da zentzuzkoagoa lanpostu horiek hornitzaerakoan euskara jakitea galdatzea?

Azkeneko ildo horretatik jarraituz, partzialki bada ere, "Noticiero Jurídico de Aranzadi" delakoan (19. zk., 1999ko ekainaren 10ekoa) azaltzen da Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko Plenoak bertako azterlan eta txostenen Batzordeari eskatu diola euskal hitzunen indizea handia den tokietako ordezko epaile eta magistratuek duten euskararen ezagutza ebaluatzeako sistema bat ezar dezala.

Hizkuntz normalkuntzari buruzko laburpen hau amaitzeko aipatu beharra dago pribatuki betetzen diren funtzio publikoetan, ez sarreran ez eta horniketan ere, ez dela euskara kontuan hartzen —besteak beste, lan horiek betetzen dituztenak notarioak, jabetza eta merkataritza erregistratzaileak, merkataritzako korredoreak, portuetako praktikoak, erregistro zibileko medikuak eta jabetza industrialeko agenteak dira—. Kasu honetan ere, guztiz zentzuzkoa eta arrazoizkoa dirudi gehiago euskalduna duten zonaldeetan euren harremana euskaraz bideratu nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatzea, Erkidego osoan gaztelania darabiltenei bermatzen zaizkien modura.

## “ Euskararen erabilera balio eta eragin juridiko osoarekin bermatuko duen lege bat behar-beharrezkoa da Administrazio publikoetan ”

### 5. Gibel solas moduan: bereziki, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruzko hausnarketa juridikoak

#### 5.1. Sarrera

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarriko Legea onartu zela XVII. urteurrena ospatzen den une honetan, ondoko galdera egin daiteke: baliozko tresna izaten ote darraien edo Legearen postulatuak egun bizi dugun eta etorkizunari begira atzematen dugun errealitateari egokitu behar ote zaizkion, kontuan hartzen baditugu igarotako denbora nahiz bere iraunaldiak euskararen normalkuntza bidean ekarri dituen aldaketa baikorrak.

Aurre gogoeta gisa, egokiak iruditzen zaizkit J.M. Sánchez Carrión-en hitzak, zera dioenean: “normalizar el euskara no es ganarle la partida al castellano o a los castellanoparlantes, sino ganar con todos la guerra a la irracionalidad y ganar la paz de un modelo de funcionamiento exportable de convivencia lingüístico-social” (*Márgenes de encuentro Bilbao y el euskara, aplicación sociolingüística de la territorialidad*, Bilbo, 1999, 344. or). Beraz, lan honen sarreran azaldu bezala, hizkuntz ofizialtasuna bikoitza den sistema bateko marko juridikoak bermatu behar duen xedea, hiritarrek, euren harreman publiko zein pribatuetan, hizkuntza askatasunez hautatu ahal izatea da; eta botere publiko orori dagokio, bere eskuduntzen esparruan, pertsona guztiek euren hizkuntz eskubideak berdintasunez egikari ditzatela bermatzea.

Gure errealitate sozialeko ideologiaren zatiketa edo, nahiago bada, aniztasun politikoa


dela-eta, hizkuntz arloko legegintzan erabateko adostasuna nekez lor daiteke. Eta hau egiaztatzeko aski da 1982ko Euskararen Normalizazio Legeari so egitea, izan ere, Legebiltzarrean onartu zenean *Alianza Popular* alderdi politikoak bere aurkakotasuna agertu ez ezik, alderdi sozialistako espainiar gobernuko lehendakariak konstituziokontrahelegite bat tarteratu baitzuen ere.

Jakina denez, gerora Konstituzio Auzitegiak helegitea ebatziz emaniko epaiak (KAE 82/1986), hizkuntz ofizialtasunaren oinarriak finkatu zituen eta zalantza izpirik gabe, Administrazioaren baitan gauzatzen ari zen euskararen normalkuntza prozesua sendotu zuen. Honekin, funtzio publikorako sarreran euskara baloratzea edo galdatzea debekatzen zuen Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari amaiera eman zitzaion.

Oinarri hauen gainean, aipatu 1989ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak hizkuntz plangintzaren zutabeak ezarri zituen. Haatik, beste eremu batzuetan, hala nola euskararen erabilpena lan hizkuntza gisa, erakundeen arteko harremanetan, kontratazioan, hirugarrenek gauzatzen dituzten zerbitzuetan, e.a., ez dago lege aurreikuspenik. Egia da Eusko Legebiltzarrean gai hauei buruz luze eztabaidatu ondoren, Plenoan “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normaltzeko plangintzaren bigarren epealdia”-ri buruzko zenbait ebazpen onartu zirela —1996ko azaroaren 15ekoak—. Halere, aipatu Ebazpenek ez dute arau indarrrik eta, emaitza gisa, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua eta urriaren 27ko 21/1998 Ebazpena baino ez dira onartu. Azken arauon aurreikuspenak zalantzarik gabe Administrazio autonomikoan ezartzen badira ere, foru eta toki Administrazioan aldiz, ez dira nahikoak.

Gai honi buruz sakonki hausnartzeko parada izan dut lan ezberdinetan (ikus *La cooficialidad lingüística en la Administración Foral y Local del País Vasco, Cuestiones particulares del régimen foral y local vasco*, Oñati, 1994, 7-50 orr.; *Administración local y lengua*, REALA, 263 zk., 1994, 409-447 orr.; eta *Administrazio foral eta lokalaren ezaugarriak euskararen normalizazio bidean*, RVAP, 44 zk., II, 1996, 219-236 orr.) eta duela hiru urte idatzitako azken azterlan honetan amaiera gisa, ondokoa adierazten nuen:

*“Euskararen Normalkuntza Legea orain hamairu urte onetsi zen, eta gure hizkuntzaren alde eman dituen emaitzak nabariak dira alor askotan. Nolanahi ere, artikulua honetan aztertu ditugun arazo askok —euskararen barne erabilera Administrazioan, Erakundeen arteko harremanak,...— ez dute islada konkreturik Euskararen Legean. Are gehiago, bere 8. artikuluko 3. atala Konstituzioaren aurkakatzen deklaratu izan ondoren, Legea udal euskaldunen babes juridikoa bideratzeko hanka-motz geratu zen.*



Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

*Nire ikuspuntutik, Konstituzio Auzitegiaren argudioak nahiko erraz bidera daitezke gure komunitatean, Galizia eta Kataluniaren ereduak jarraituz (ikus aipatutako “La cooficialidad...”, 15-24 orr., eta “Administración Local...”, 414-423 orr.). Baina benetan gai honek ez du oihartzunik eduki eta arazo juridikoek egoera berdinean diraute azkeneko hamar urteotan.*

*Nola bideratu behar dira hemen aipatutako arazoak? Etokizun hurbilari begiratu, Eusko Legebiltzarrak onetsi behar duen Udal Legearen bitartez. Lege honek babes juridiko esplizitua eman behar lieke ondorengo alderdior: udal euskaldunek beren Administrazioako barne lana euskara hutsez egiteari, euskararen aldeko bonifikazio fiskalei, eta erakundeen arteko harremanetako hizkuntzen erabilerari —eta puntu honetan Gipuzkoako Batzar Nagusien Araua eredu izan liteke—. Eta jakina, gune euskaldunetan bi hizkuntza ofizialen erabilera malgutuz, egitura juridiko bat sortu beharko luke udal bakoitzaren aukeran euskararen erabilerari maila guztietako lehentasuna eman diezaioten, beti ere hizkuntza diskriminaziorik sortu gabe.*

*Ildo beretik, euskal herritarren hizkuntza eskubideak babestuak izan daitezen, Udal Administrazio guztiek kanpo harremanak hizkuntz ofizial bietan bermatzeko gai izatea izango litzateke xede nagusia”.*

Une honetantxe beraz, zera errepikatu behar da: euskararen erabilera —balio eta eragin juridiko osoarekin— bermatuko duen lege bat behar-beharrezkoa dela Administrazio publikoetan lan hizkuntza gisa, erakundeen arteko harremanetan, administrazio egintzen jakinarazpenean, aktak idazterakoan,

kontratazioan, zerbitzu publikoetan, zerga-hobaritan, e.a... Izan ere, honekin, Auzitegi Gorenak azken epaietan —1999ko martxoaren 8koa eta maiatzaren 24koa— agertu duen doktrina murriztaileari amaiera emango bailitzaike. Halaber, 1998ko ekainaren 24ean Euskararen Aholku Batzordeak onartutako —eta Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an berretsitako— Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko neurriei babes juridikoa emango litzaike. Aipatu Plangintzaren helburu nagusia euskal hiritar guztien hizkuntz eskubideen erabateko eraginkortasuna lortzea da. Honetarako, ordea, ez da aski eskubide horien arrezagupen

soila, baizik eta beharrezkoa da euren egikaritzea eraginkorra ahalbidetuko duten berme juridikoak antolatzea, hautatutako hizkuntza ofiziala edozein dela ere.

## 5.2. Plan nagusiari buruz sei ohar

a) Abiapuntu gisa, Planaren helburu nagusia ondokoa da: “euskaraz bizi nahi duenari, hala bizitzeko aukera bermatzea” eta ondorioz lortzea, gaztelania erabiltzen dutenekin gertatzen den bezala, euskaldunon hizkuntz eskubideak errespeta daitezela.

Egia da, gaur egun, aipatu helburu kimeriko hau adieraztea erraza dela, baina oso zaila errealitatean gauzatzea, izan ere, euskal gizartean euskaldunok, bere osotasunean, gutxiengo osatzen baitugu. Hori dela eta, oinarrizko giltzarri bihurtzen zaigu Estatutuko 6.2 art.ak adierazten duena, alegia “Euskal Herriko aniztasun soziolinguistikoa”, eta gai honi Planak aipamen puntualak egiten dizkio, baina ez sistematikoki.

Nire ustez, kontuan hartzen badugu ehuneko 66tik gorako derrigortasun indizea, ehuneko 33tik beherakoa, edo ehuneko 33 eta ehuneko 66 bitartean kokatzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea hiru esparru soziolinguistikotan bana daiteke. Lurralde bakoitzean, hiritarren hizkuntz eskubideak sustatzeko nahiz babesteko neurriak gehiago edo gutxiago gara daitezke, edo eraginkortasun osoz bermatu.

Jakina, aipatu guztia, lurralde osoan euskarak duen ofizialtasuna ukitu eta murriztu

gabe. Eta noski, ofizialtasunak dituen ondorioen eraginez, batik bat irakaskuntzaren eremuan, oraindano gertatu den bezala, belaunaldi berrien etengabeko euskalduntzearen areagotzearen ildoak jarraituz, eta ondorioz, sustatuz proportzionalki Autonomia Erkidegoan euskaraz gutxien hitz egiten den lurraldearena.

Beraz, Autonomia Erkidegoan hizkuntz politika amankomun bat egon daiteke, eta egon behar du, baina proposatutako zatiketa birtualarekin (+%66, %33-%66 eta -%33), ezarpen eta sustapen neurri juridiko zehatzak, edozein gizarte jardueretan errealitate soziolinguistikoari hobe egoki lekizkioke; izan ere, halaxe gertatzen da dagoeneko ezinbestean Euskal Administrazio Publikoetan. Honela, esaterako, ikuspegi juridiko batetik, ehuneko 66tik gorako derrigortasun indizea duten udalerrietan, gizarte eremu guztietan, *mutatis mutandi*, Katalunian onartu berri den Hizkuntz Politikarako Legean aurreikusitako neurriak sustrai litezke.

b) Oro har esan daiteke Plana ikuspegi soziolinguistiko batetik egina dagoela, hausnarketa juridikoa kontuan hartu gabe. Honek lekartzakeen ondorio baikorren artean Zuzenbidearen mugarik eza legoke, eta ondorio ezkorrei dagokionez, zorrotasun falta publikoa eta pribatua desberdintzerakoan, hizkuntz alorrean proposamenak egiteko momentuan [ikus adibidez, VI.3.2 d) atalean, enpresa erakunde edo erakunde sindikalen eta merkataritzako ganbara edo profesio-kolegioen artean ematen den nahasketa].

Ildo honetatik, nire ustez, etorkizunari begira, juridikoki Plana aztertzerakoan egin litekeen hausnarketarik garrantzitsuena zera da: bereiztea egun Autonomia Erkidegoan indarrean dauden Legeetan (bereziki, 1982ko Euskararen Normalizazio Legea) oinarri daitezkeen proposamenak eta garatu ahal izateko lege testu berri baten babesa beharko luketenak (jakina, lege testu hau, zati batean bederen, etorkizun hurbilean udal Legea izan daiteke).

c) Irakaskuntzaren eremuan, argiagoak direla derizkiot Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia (arestian aipatu 88/1983 KAE) eta aipatu lege oinarria [ikus *supra* I.1) atalean], derrigorrezko hezkuntzan hizkuntza ofizialen irakaskuntza eraginkorki antolatze beharrari dagokionez, VI.3.1 a) atalean egiten diren proposamenak baino, nahiz eta, logikoki, denek zentzu berbera izan.

Unibertsitate eremuko irakaskuntzari dagokionez, derrigorrezko hezkuntzan euskara eta gazteleraren jakintza eraginkorra bermatzen bada, egun ematen den hizkuntzen banaketa edo

segregazio eredu gaitzitu behar dela deritzot, ikasle guztientzat bi hizkuntza ofizialen elkartze eredu bat eratzeko, beharbada ingelesez irakaskuntzak gehituz, Europa iparraldeko herrialde garatuenetan gertatzen den bezala.

d) Plangintzaren zatirik handiena, euskara sustatzeko neurriek osatzen dute, eta nire ustez, neurri hauek egokitu egin beharko liriateke lehen aipatu diren aldagai ezberdinetara: hots, neurriaren lege oinarria edo babesa, bere ezarpen eremu publikoa edo pribatua, egikaritzako den lurralde eremu soziolinguistikoa eta, jakina, eskura daitezkeen bitarteko ekonomiko eta materialak. Harreman pribatuetan, eremu sozioekonomikoan, euskalduntze maila handia den tokietan, urrats tinkoak eman beharko liriateke ere, kontsumitzaile euskaldunen hizkuntz eskubideak juridikoki bermatzeko.

e) Zerbitzu publikoen kasuan, lehenetsunez, plangintza zehatz bat abian jartzea premiazkoa da osasun sektorean, Ertzaintzan, Estatuko Administrazio periferikoan. Justizia Administrazioan eta funtzio publikoen jardura pribatuan, hain zuzen ere. Planean eremu garrantzitsu hauei aipamen eskasak egiten zaizkie.

f) Azkenik, gizarte komunikabideei buruzko proposamenen artean, euskara sustatzeko neurriak alde batera utziaz, telebista eta irrati pribatuak aztertzerakoan, emisorei hizkuntz kuota ezartzea xede duten neurrien hutsunea sumatzen da, Eusko Jaurlaritzak emisorak ustiatzeko emakida eman duenean, hau guztia, lehenago aipatu printzipioak, eta batik bat, irrati-telebista emisioak hedatuko diren lurraldeko derrigortasun indize soziolinguistikoa kontuan harturik.